

**2023KO MARTXOAREN 16AN EGINDAKO
EZ-OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu Ortiz
Mikel Iturbe Saizar
Olaia Nieto Legarra
Leticia Aristi Oria
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Jose Ramón Epelde Irizar
María Cristina Santos San Sebastian
Marta Castrillo Iturralde

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza And.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2023ko martxoaren 16an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko EZ-OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

**1.- UDALAK, SAN MIGEL PLAZA 11, BAXUAN OSTATU BERRIA EGITEKO OBRA KONTRATUA-
REN BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULAR ETA PLEGU TEKNIKOAK ONARTZEKO
PROPOSAMENA.**

Gorka Alkateak hartu du hitza eta Ostatu berria egiteko aurrekariak azaldu ditu; Irurako herritarrekin batera egin zen prozesu partehartzailearen bidez, Iruratarrek besteren artean, Ostatua berri eta erabakia aukeratu zutela. Hemen aurkezten den proiektua CB2 enpresak egin duela eta obra zibilari dagokion dokumentua aurkezten dela. Ondoren lizitazioaren datu orokorrenak azaltzen dira.

UDALBATZAREN ERABAKIA

Irurako UDALBATZAK, 2023ko martxoaren 9an, ez-ohiko udalbatzan eta, Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 2. Xedapen Gehigarriaren 1. puntuak xedatutakoaren arabera, honako hau

IKUSIRIK

Kontratuaren gaia eta helburua: IRURAKO OSTATU BERRIA EGOKITZEKO OBRA.

Unitate sustatzailea: Hirigintza saila

Kontratu mota: obra kontratua.

Prozedurari dagokionez

Espediente mota: Ohiko tramitazioa du.

Esleipena egiteko bidea eta modua: Prozedura irekia eta izapide arrunta bidez.

Baldintza Orriak: Espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak eta Preskripzio Teknikoak doaz.

Araudi aplikagarria

- 1.- Azaroaren 9ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea eta urriaren 12ko 1098/2001 Erregelamendua.
- 2.- Administrazio baldintza zehatzen orriak.

Txostenak

- Teknikariaren memoria.
- Idazkaritzaren lege txostena.
- Kontu-hartzailearen ziurtagiriak.

Kontratua esleitzeko eskuduntza

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 2. Xedapen Gehigarriaren 1. atalaren eta 2005/1064 udal dekretuaren arabera, kontratu hau esleitzeko eskuduntza Alkatearena da.

Eta aipatutako guztia ikusirik honako hau,

ERABAKI DU

LEHENA.- Prozedura ireki arruntaren bidez, **IRURAKO OSTATU BERRIA EGOKITZEKO OBRA** kontratatzeko espedientea onartzea.

BIGARRENA.- Aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespina ematea.

HIRUGARRENA.- Gorka Murua Macuso ahalduntzea, kontratua sinatzeko, kontratuari dagozkion aldaketak edo zalantzetan espedienteak hasieraz onartzeko.

LAURRENA.- Goian aipatutako gaiak zehazten duen kontratua burutu ahal izateko BEZ barne 334.762,52 € gastua onartzea 1.0000.683.165.00.00 (2022) 1.0000.683.165.00.00 (2023) partidaren kontura.

Gastuen partida	Azalpe-na	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.683.165.00.00 2023	Zahar etxea, ostatu	0,00	284.762,52	284.762,52
1 0000.683.165.00.00 2022	Zahar etxea, ostatu	0,00	50.000,00	50.000,00
GUZTIRA		0,00	334.762,52	334.762,52

BOSGARRENA.- Lizitazioa udaleko kontratatzaile profilean argitaratzea.

ERREKURTSOAK

Egintza hau izapide egintza kualifikatua da.

Erabakiaren aurkako errekurtsuak:

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsua aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.
- Non: Udaltzara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik.

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsuaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsuaren erantzunaren jakinarazpena jaso etabiharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena Idazkariak. Iruran, ziurtagiriaren datan

IDAZKARIA
Irantzu Arrizabalaga Gainza

IRURAKO OSTATU BERRIA EGOKITZEKO OBRA-KONTRATUA

ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA.

PROZEDURA IREKIA ETA IZAPIDETZE ARRUNTA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen babesean egingo den kontratuaren xedea Irurako ostatu berria egokitzeko OBRA-KONTRATUA izango da, CB2 exekuzio-proiektuaren arabera idatzitakoa. Proiektu horrek kontratu-izaera izango du.

CPV kodea:

45000000-7 Eraikuntza-lanak

45212420-6 - Jatetxeak eta antzeko establezimenduak eraikitzeko lanak.

45212500-1 - Sukaldeak edo jatetxeak eraldatzea

2. GAUZATZEKO EPEA

Kontratu honen xede diren obrak egiteko epea SEI (6) HILABETEKOA izango da gehienez, zuinketa-aren egiaztapen-akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Abuztua ere laneguna izango da, eta proposatutako epearen barruan hartuko da kontuan.

Kontratututako enpresa berandutza-egoeran dagoela ulertuko da kontratuan aurreikusitako epea igarotzeagatik, eta Administrazioak ez du alde zuzenetik agindeirik egin beharko.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren balio zenbatetsia 276.663,24 € da, BEZik gabe, gehi % 21eko BEZa 58.099,28 €, hau da, 334.762,52 € guztira.

GAUZATZE MATERIALAREN AURREKONTUA		232.490,12 €
	13 gastu orokor	30.223,72 €
	% 6 etekin industrialak	13.949,40 €
KONTRATA GAUZATZEKO AURREKONTUA		276.663,24 €
	BEZa % 21	58.099,28 €
LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA, GUZTIRA		334.762,52 €

Kontratuaren prezioan unitate-prezioen zerrenda bat sartuko da, eta prezio horiek proposamen ekonomikoan agertzen den beherapen-ehuneko berean eragingo dute.

Kontratua esleitu ondoren, prezioaren barruan sartuko dira kontratuaren ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak, garraioa eta instalazioa barne.

4. FINANTZAKETA

Kontratua betetzeak udalari dakartzkion betebeharrei erantzuteko aurrekontu-kreditu nahikoa dago.

Era berean, aurrekontu-gaietan eskumena duen organoak konpromisoa hartzen du eragindako etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan kreditu egokiak erreserbatzeko.

Zehazki, Udalaren Aurrekontuan jasotako partida eta urte hauen kargura finantzatuko da:

- 1 [0000.683.165.00.00](#) (2022)
- 1 [0000.683.165.00.00](#) (2023)
-

5. ORDAINTZEKO MODUA

Gauzatutako obrak hileroko ordainduko dira, obren zuzendari fakultatiboak emandako aldizkako ziurtagirien bidez.

Faktura onartu ondoren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 198. artikuluan legez aurreikusitako epeen barruan ordainduko da.

Enpresa kontratistak formatu elektronikoan aurkeztuko ditu fakturak, Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu Orokorraren (PGEFe) bidez (<https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua>), udaleko Aurrekontua Betearazteko Arauan xedatutakoaren arabera, faktura elektronikoa sustatzeko eta Sektore Publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legea betez.

Unitate organikoen DIR3 kodeak: Irurako Udala:

- Organo kudeatzailea: L01200467
- Unitate izapidegilea: L01200467

- Kontabilitate-bulegoa: L01200467

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

EZ.

7. BERMEAK

7.1. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da eskatzen.

7.2. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren enpresa esleipendunak, hartutako betebeharrak beteko direla bermatzeko, esleipenaren zenbatekoaren % 5eko behin betiko bermea jarri beharko du, BEZik gabe.

Kontratuaren enpresa esleipendunaren proposamen ekonomikoa hasieran anormaltzat edo neurritz kanpokotzat jo bada, ondoren onartzeko, aurreko bermeaz gain, berme osagarri bat eratu beharko du, esleipen-zenbatekoaren % 5ekoa, berme osoa kontratuaren prezioaren % 10ekoa izan dadin.

Aipatutako bermea eratzeko epea hamar egun baliodunekoa izango da, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuzaileak errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 108. artikuluan ezarritako edozein bitartekotan eratu ahal izango da, salbu eta dirutan eraturakoak Irurako Udalaren edozein kontu korrontetan sartu beharko direla.

Bermea, osoa nahiz partziala, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, berme-epea amaitu eta enpresa esleipendunak kontratuko betebeharrak guztiak bete ondoren.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

8. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik onuragarrienak zehazteko, esleipen-irizpide hauek hartuko dira kontuan: eskaintzarik onuragarriena, hau da, eskaintzarik onena, kalitate/prezio irizpideen arabera.

Eskaintzarik onuragarriena kalkulatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

Jarraian adieraziko dira eskaintzarik onuragarriena zehazteko oinarri izango diren esleipen-irizpideak. Gehienez ere 100 puntu lor daitezke:

8.1. BALORAZIO-IRIZPIDEAK, BALIO-IRIZPIDEEN ARABERA: 30 puntu, gehienez. (artxibo elektronikoa Bzenb)

Lizitatuzaileek ez dituzte inola ere artxibo honetan jasoko beren datu ekonomikoak, ezta formulen bidez automatikoki baloratu daitezkeenak ere.

8.1.1. Memoria teknikoa: 8 puntu, gehienez.

Azterlan horrekin, lanak gauzatzeko proposamen orokorraren planteamendu argia eskatzen da. Obraren zailtasunak komentatu, deskribatu eta aztertuko dira. Era berean, obra gauzatzeko lanek eta haien arteko harremanek eragin ditzaketen kalteak eta interferentziak aztertuko dira. Baloratuko da esleitutako lanetarako deskribatutakoa zuzena, zehatza, arrazoitua eta egokia dela.

- 8.1.1.1. Proiektua aztertzea: gauzatze-lanen deskribapen orokorra, lanen ordena eta proposamenak arrazoituta (4 puntu).
- 8.1.1.2. Obraren zailtasun nagusiak identifikatzea, puntu kritikoak definitzea eta horien aurrean hartuko diren jarraibideak azaltzea eta arrazoitzea (4 puntu).

8.1.2. Gauzatze-lanen programa: 8 puntu, gehienez.

- 8.1.2.1. Plangintza, epe partzialak eta aurreikusitako 8 hilabeteko epea betetzeko bitartekoak. Atzerapenak berreskuratzeko eta obra gauzatzeko epea eguneratzeko bitartekoak. Obraren plangintzaren jarraipena egiten laguntzeko bitartekoa edo metodologia (4 puntu).
- 8.1.2.2. Proiektuan eta zuzenketa-proposamenetan egon daitezkeen akatsak edo zehaztugabetasunak identifikatzea (4 puntu).

8.1.3. Proposamen teknikoak eta ingurumenekoak: 24 puntu, gehienez.

- 8.1.3.1. Obra gauzatzean segurtasun-faktorea areagotzen duten proposamenak (6 puntu).
- 8.1.3.2. Proposamen teknikoak esleitutako azpiegituraren azken kalitatea hobetzea (6 puntu).
- 8.1.3.3. Obra amaitzean urbanizazioa ahalik eta gutxien mantentzeko proposamena (6 puntu).
- 8.1.3.4. Obra gauzatzean ingurumen-inpaktuak saihesten edo minimizatzen dituzten proposamenak (6 puntu).

8.2. MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 70 puntu arte (artxibo elektronikoa, C edo GK)

8.2.1. PREZIOA (0-70 puntu)

Kontratuaren gehieneko prezioa 276.663,24 eurokoa da, % 21eko BEZa barne, 334.762,52 euro guztira. Eskaintzen balorazioa ondoren zehazten den formula matematikoaren arabera egingo da:

$$EP = (LM - BE/LM - ET) \times 70$$

Non

EP Eskaintzaren puntuazioa HM Lizitazio-prezioa

BE Baloratu beharreko eskaintza ekonomikoa ET Eskaintza ekonomiko txikiagoa

Hasiera batean, neurritz kanpokotzat edo anormaltzat joko dira Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikulua (1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa) eta azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera halakotzat kalifikatu

behar direnak, eta Sektore Publikoko Kontratuaren 149. artikuluan aurreikusitakoa beteko da.

9. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, baldin eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeke debekurik ez badute.

Halaber, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin ahal izango dute, horretarako emandako ahalorde askietsiaren bidez. Pertsona juridiko baten ordezkari izan pertsona juridiko horretako kideren bat agertzen bada, pertsona horrek agiri bidez justifikatu beharko du horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, ordezkariari kontratatzeke ezintasun-arrazoi horiek eragiten diote.

Gainera, pertsona juridikoek kontratu honen xedearekin lotura zuzena duten jarduerak egin beharko dituzte, eta kontratua behar bezala gauzatzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material dituen erakunde bat izan beharko dute.

Kontratatzeke gaitasuna eta kaudimena ENPRESA ESLEIPENDUNAK BAKARRIK egiaztatuko ditu, honako agiri hauek aurkeztuz:

9.1.- Enpresaburuaren eta, hala badagokio, haren ordezkariaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten dokumentuak.

Nortasuna egiaztatzeke, honako hauek aurkeztu behar dira:

- Nortasun Agiri Nazionala, lizitatuak bere izenean jarduten badu.
- Beste pertsona edo erakunde baten ordezkari gisa jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze-eskrittura. Dokumentazioa kalifikatzeko egintzan, ofizioz, ahalordea askietsiko da.
- Lizitatuak pertsona juridikoa denean, eraketa-eskrittura edo, hala badagokio, aldaketa-eskrittura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, inskripzioa aplikatzeko den merkataritza-legeriaren arabera eskatzeko denean. Hala ez bada, jarduteke gaitasuna eratze-eskrittura edo -dokumentuaren, estatutuen edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da, eta bertan jasoko dira jarduerak arautzen duten arauak, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Espainiarrak ez diren Europako Erkidegoko estatu kideetako enpresariak direnean, lanbide- edo merkataritza-erregistro batean inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, dagokion estatuko legeriak betekizun hori eskatzen duenean.
- Baldin eta hainbat enpresaburu aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez aurkeztu badira lizitatuak, elkarte hori osatzen duen enpresaburu bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, era berean, esleipendun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko du. Era berean, proposamenean ABEEko kide bakoitzak egingo lukeen xedearen zatia adieraziko dute, kide horien guztien kaudimen-betekizunak zehazteke eta egiaztatzeke.

9.2.- Erantzukizunpeko berariazko adierazpena, adierazteko ez duela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan zerrendatutako kontratatzeke debekurik.

9.3.- Erantzukizunpeko berariazko adierazpena, indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duena.

9.4.- Atzerriko enpresek, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala badagokio, enpresa lizitatuileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adierazten duen deklarazioa.

9.5.- Kaudimena:

1. Enpresaburuaren kaudimen ekonomikoa urteko negozio-bolumen bat aurkeztuz egiaztatuko da. Bolumen hori azken hiru lanaldietako onenaren baliokidea izango da, eta gutxienez 600.000 eurokoa.
2. Enpresaburuaren gaitasun teknikoa egiaztatzeke, azken hiru urteetan egindako lanen zerrenda aurkeztu behar da, dagozkion ziurtagiriekin batera. Kaudimenduntzat joko da gutxienez 600.000 euroko (BEZa barne) urbanizazio-obra bat badago.

*** Dokumentazio hori benetako kopian aurkeztuko da.**

10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, hari lotutako dokumentazio teknikoa, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria Irurako Udalaren kontratatzailearen profilaren bidez eskuratu ahal izango dira, lizitazio honen iragarkia kontratatzailearen profil horretan argitaratzen den unetik proposamenak aurkezteko epea amaitu arte. Harremanetan jartzeko:

San Migel plaza z.g. – 20271 Irura

Tel. 943 691333

Helbide elektronikoa: hirigintza@irura .eus

Kontratatzailearen profila: [www. irura .eus](http://www.irura.eus)

Proposamenak aurkezteko, bitarteko elektronikoak baino ez dira erabiliko, 9/2017 SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunen arabera, HOGEITA SEI (26) EGUN NATURALEKO epean, 23:59ak arte, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Proposamenak isilpekoak izango dira, eta proposamenak ireki arte isilpean gordeko direla bermatzeko bitartekoak jarriko dira.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko behar diren informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta dataren balidazioa barne, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman daude (www.contratacion.euskadi.eus).

10.1. AURKEZPEN ELEKTRONIKOA

Lizitazio elektronikoen erabiltzaileentzako Laguntza Zentroa: 945016298 (7:45etik 20:00etara). Interneteko helbidea: www.euskadi.eus

Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus

10.2. PROPOSAMENEN EDUKIA

Enpresa lizitatuzaileek HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO aurkeztu beharko dituzte (“A”, “B” eta “C”)

- 1) «A ARTXIBO ELEKTRONIKOA» «KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA» deituko zaio, eta honako dokumentu hauek jasoko ditu:

I. eranskina: erantzukizuna adierazteko eredia.

- 2) ARTXIBO ELEKTRONIKOA, B, «BALORAZIO TEKNIKO BATEN MENDE DAUDENAK» deituko da, eta dokumentu hauek izango ditu: administrazio-agirien 8.1 klausulan eta baldintza-agiri teknikoetan ezarritako adjudikazio-irizpideei buruzko dokumentazioa, balio-judizio baten bidez baloratzeko.

Artxibo honetan ez da sartu behar, inola ere, automatikoki kuantifika daitezkeen esleipen-irizpideei buruzko daturik, zeinak «C» fitxategian sartu beharko baitira.

- 3) ARTXIBO ELEKTRONIKOA, C "AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPI-DEEN GAINEKO PROPOSAMENA" deituko da, eta honako hauek jasoko ditu:

Proposamen ekonomikoa , plegu honen II. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

11. ALDAERAK EDO ALTERNATIBAK

Ez dira onartzen.

12. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia honela osatuko da:

1. Gorka Murua Ciuoso, alkatea, lehendakaria.
2. Irantzu Arrizabalaga Gainza, udal-idazkaria, batzordekidea

3. Iñaki Arregi Garitano, udal-aparejadorea, batzordekidea.
4. Cristina Fernandez Izaguirre, administrazio-funtzionarioa, mahaiko idazkaria.

Horrez gain, Mahaiak eskatzen dituen udal-arduradun tekniko guztiak ere bertaratu ahal izango dira, aholkularitza-lanak egiteko.

13. DOKUMENTUEN KALIFIKAZIOA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, honela jokatu da:

1) "A" ARTXIBOA IREKITZEA, NORI:

Artxibo elektronikoa «A» dena aztertuko da, aurretiko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Beharrezkoa izanez gero, Kontratazio Mahaiak gehienez hiru egun naturaleko epea emango du lizitatzailleak akatsak zuzen ditzan.

2) "B" ARTXIBOA IREKITZEA:

"A" artxiboko dokumentazioa baloratu ondoren, "B" artxiboko dokumentazioa irekiko da "Kontratatzaillearen Profilean adierazitako egunean eta orduan, irekiera publiko hau Streaming bidez emitituko da plataformaren bitartez. Streaming bidezko lizitaziorako esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_irura_eu.html
- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_irura_es.html

"B" Fitxategia ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak dokumentazioa helaraziko dio balorazioaren ardura duen teknikariari, eta hark balorazio-txostena egin beharko du.

3) "C" ARTXIBOA IREKITZEA:

"B" artxiboko dokumentazioa baloratu ondoren, "C" artxiboko dokumentazioa irekiko da "Kontratatzaillearen Profilean adierazitako egunean eta orduan, irekiera publiko hau Streaming bidez emitituko da plataformaren bitartez. Streaming bidezko lizitaziorako esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_irura_eu.html
- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_irura_es.htm

14. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratazio Mahaiak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 150.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, aurkeztutako proposamenak, aktarekin eta esleipen-proposamenarekin batera, kontratazio-organoari helaraziko dizkio.

Kontratazio-organoak eskaintzak sailkatuko ditu eta eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzailari eskatuko dio hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako jarduketa hauek egin ditzala:

- a. Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea (9. klausulan adierazitakoa).
- b. Behin betiko bermea eratztea.
- c. Adierazi kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa.
- d. Erantzukizun zibileko aseguruen eta eraikuntza-arrisku orotako aseguruen polizen eta ordainagirien kopia aurkeztea.
- e. Egin beharreko azpikontratuen zerrenda aurkeztea, azpikontratutako enpresa bakoitzak egin beharreko kontratuaren zatiak adierazita.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzailari ezin bazaio kontratua adjudikatu hark horretarako behar diren baldintzak betetzen ez dituelako, beste deialdi bat egin baino lehen, Administrazioak beste errekerimendu bat egin ahal izango dio haren atzetik dagoen enpresa lizitatzailari edo lizitatzailari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera (bere gaitasuna egiaztatzen ez duen enpresa kendu ondoren). Kasu horretan, hamar egun balioduneko epea emango zaio enpresa lizitatzailari aurretik adierazitakoa betetzeko.

Kontratua administrazio-agirian formalizatuta burutuko da. Dokumentu hori esleipenaren jakinarazpena jaso eta hamabost egun baliodun igaro baino lehen egin beharko da.

Lizitazio- eta esleipen-iragarkien gastuak Udalak ordainduko ditu.

III.- KONTRATUA GAUZATZEA

15. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua gauzatzeaz arduratuko den udal-teknikaria udal-aparejadorea izango da, SPKLren 62. artikuluan aurreikusitako einkizunekin.

16. KONTRATUA GAUZATZEA

Obra-kontratua gauzatzen hasiko da zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen denean, eta gehenez ere 15 eguneko epean egin beharko da, kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Gainera, enpresa esleipendunak lan-programa bat aurkeztu beharko du, kontratazio-organoak onar dezan. Programa hori hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko da, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita, eta bere proposamenarekin batera aurkeztutako programa garatuko du. Proposamen horrek ezin izango du kontratuaren baldintzetako bat bera ere aldatu.

Kontratatutako enpresak bere gain hartuko ditu kontratua gauzatzeko arriskuak, eta enpresak ez du

Obrek eragindako galera, matxura edo kalteengatiko kalte-ordainak jasotzeko eskubidea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 239. artikuluan aurreikusitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Nolanahi ere, obrak egitean, zorrotz bete beharko dira baldintza-agiri honetan ezarritako klausulak, baldintza-agiriari lotutako zehaztapen teknikoak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoa, eta lege horren erregelamendu orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua. Bereziki, Administrazioaren zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean gauzatu da kontratua, eta Administrazioak idatziz zein ahoz baliatuko ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren mendeko pertsoneri egotz dakizkiekeen egintzengatik edo ezegiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen bada, Administrazioak eskatu ahal izango du beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela kontratua behar bezala exekutatzea lortzeko edo berrezartzeko.

17. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratatutako enpresak nahitaez bete behar ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dauden lege-xedapenak, kontratu honen xede diren lanak egiten dituzten langileei dagokienez, eta Administrazioa erantzukizunetik salbuetsita geratuko da ez-betetze horrengatik.

Enpresa esleipendunak, kontratua sinatu aurretik, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko du.

Kontratatutako enpresak, kontratua gauzatzen den bitartean, langile bakoitzari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ez da inola ere izango hura baino txikiagoa.

Kontratatutako enpresak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du.

Klausula honetan jasotako betebeharrak kontratuaren baldintza berezitzat hartzen dira, eta horiek ez betetzea astuntzat joko da, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211.f) artikuluan aurreikusitako kontratua suntsiaraztea ekarriko du.

18. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

Kontratatutako enpresa izango da kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz sortzen diren kalte-galeren erantzulea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horretarako, enpresa esleipendunak, kontratua sinatu aurretik, polizaren kopia eta aseguru-kontratu honen ordainagiria aurkeztu beharko ditu:

- a) Eraikuntzako Arrisku Orotako Poliza, egindako obrek eta egiten ari direnek izan ditzaketen kalteak estaliko dituena, Udala aseguraturat hartuta, eta honako estaldura hauek estaliko dituena:
- 1 Suteak, tximistak, leherketak, lapurretak, espolioazioak, inpaktuak, trebetasunik ezak, zabarkeriak, ekintza bandalikoak eta asmo gaiztokoak, naturaren arriskuak eta/edo izendatu gabeko beste edozein arrisku gertatzeko arriskuek eragindako kalteak.
 - 2 Honako hauen ondoriozko berme gehigarriak:
 - Diseinu-errorea, fabrikatzailearen arriskua.
 - Aparteko orduen, hondakinak kentzearen, eraistearen, agintaritzak hartutako neurrien eta abarren gastuak.
 - Lehendik zeuden ondasunei eragindako kalteak.
 - Greba, matxinada eta terrorismoa.

Eraikuntza-aldian jatorria duen kausa baten ondoriozko galera edo kalte oro aseguraturata egongo da, bai eta obra-kontratuan ezarritako betebeharrak behar bezala betetzeko etapa horretan edo ondorengoetan egiten diren lanen ondorioz sortzen den galera edo kalte oro ere.

Polizaren mantentze-aldia urtebetekoa izango da, gutxienez, obrak jasotzen direnetik aurrera.

- b) Erantzukizun Zibileko Poliza (CIVIL), alderdi hauei dagokienez: orokorra, patronala, gurutzatua eta amaitutako lanak, aseguratu gisa barne hartuta kontratista, azpikontratatik eta Administrazioa, obren sustatzailea den aldetik, gutxienez 1.000.000 €-ko zenbatekoa bermatuta (eta 300.000 euro biktima bakoitzeko).

19. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoko arrazoiengatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 203. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan eta moduan.

20. HARRERA ETA BERME-EPEA

Obrak entregatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 210. artikuluan xedatutakoa bete beharko da. Artikulu hori Udaleko Zerbitzu Teknikoek aztertu ondoren, obrak jasotzea proposatuko da, edo, bestela, antzemandako akatsak konpontzeko beharrezko jarraibideak idatziz emango zaizkio enpresa kontratistari, eta horretarako epea adieraziko da.

Kontratua amaitu eta gehienez ere 30 eguneko epean, jaso izanaren egintza formal eta positiboa gauzatuko da.

Obrak hartzeko moduan ez daudenean, berariaz adieraziko da hori, eta akatsak zuzentzeko jarraibideak emango zaizkio kontratistari. Konponketarik egiten ez bada, administrazioak kontratistaren kontura utziko ditu, eta ez du edukiko ezer ordaindu beharrik, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea eskuratuko du.

Era berean, URTEBETEKO epea ezartzen da, harrera formala egiten den egunetik zenbatzen hasita, enpresa lizitatzailleek epe luzeagoa proposa dezaketen arren. Epe hori berme gisa ezartzen da Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta lege horren erregelamendu orokorrean aurreikusitako ondorioetarako.

Hala ere, berme-epea amaitu ondoren obra hondatzen bada kontratistak kontratua ez bete-zearen ondorioz eraikuntzan ezkutuan egindako akatsengatik, kontratistak izango du kalte eta galeren erantzukizuna hamabost urteko epean, obra hartzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan inolako kalte edo galerarik agertzen ez bada, erabat iraungiko da kontratatutako enpresaren erantzukizuna.

21. EZ BETETZEAGATIKO ZIGORRAK KONTRATISTARENTZAT

A) KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAK

Baldin eta kontratatutako enpresa, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua gauzatzeko epea betetzen berandutu bada, bai epe osoan, bai epe partzialetan, Administrazioak bi aukera izango ditu: kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua suntsitzea, bermea galduta, edo eguneko zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko euro 1eko proportzioan.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigorr berriak ezarrita, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN GAUZATZE PARTZIALA EDO BETETZE AKASTUNA

Kontratutako enpresak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren gauzatze partziala bete ez badu edo kontratuan zehaztutako prestazioak behar bezala bete ez baditu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, bermea galtzea, edo eguneko zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko euro 1eko proportzioan, eragindako kalte eta galeren kalte-ordainarekin batera.

C) KONTRATUAREN BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA

Kontratutako enpresak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren baldintza bereziak bete ez baditu, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, bermea galduta, edo eguneko zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko euro 1eko proportzioan, eragindako kalte-galeren ordainarekin batera.

D) AZPIKONTRATAZIO-BALDINTZAK EZ BETETZEA

Kontratastak plegu honen 22. klausulan aurreikusitako azpikontratazio-baldintzak betetzen ez dituenean, azpikontratuaren zenbatekoaren % 50erainoko zigorra ezarriko da.

Udalak kontratua suntsiaraztea erabaki ahal izango du, baldin eta azpikontratazioaren bidez kontratastak kontratuaren betebeharrak nagusia betetzen ez badu.

22. AZPIKONTRATAZIOA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 215. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta eskatutako baldintzak bete ondoren, enpresa esleipendunak hirugarrenekin itundu ahal izango du kontratuaren zati bat gauzatzea.

Azpikontratuak egin ahal izateko, azpikontratutako enpresak idatziz jakinarazi beharko dio Administrazioari zer azpikontratu egingo den, azpikontratutako enpresak egin beharreko kontratuaren zatiak adierazita.

Gainera, enpresa kontratastak administrazioari eman beharko dizkio azpikontratastaren identitatea, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria, bai eta egin behar duen kontratuzatia gauzatzeko hark duen gaitasunaren justifikazioa ere.

Nolanahi ere, enpresa esleipendunak bere gain hartuko du udalaren aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa, enpresa azpikontratastak, baleude, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea barne.

Enpresa kontratastak, azpikontratutako enpresei datu egokiak eskatu ondoren, justifikatu ahal izango du enpresa horiek ere aplikatzen dituztela lan-arloan, gizarte-segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak.

Enpresa azpikontratastak, lanak hasi aurretik, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko dute.

Enpresa azpikontratastak, kontratua gauzaten den bitartean, langile bakoitzari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatzeko den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko dute, eta ordaindu beharreko soldata ez da inola ere izango hura baino txikiagoa.

23. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratua laga ahal izango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 214. artikuluan ezarritako muga eta baldintzekin.

24. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZIOIAK

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. eta 245. artikuluetan ezarritakoak dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

25. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Administrazioari dagozkio kontratua interpretatzeko prerrogatibak, kontratua betetzean sortzen diren zalantzak argitzekoak, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzekoak, kontratua suntsiaraztea erabakitzeak eta suntsiaraztearen ondorioak zehaztekoak, betiere, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta lege horren erregelamendu orokorrean ezarritako muga barruan eta bertan ezarritako betekizun eta ondorioei lotuta.

26. HIZKUNTZA-BETEKIZUNAK

Enpresa esleipendunak administrazio kontratatzailean aplikatzen diren hizkuntza-arauen arabera jardungo du kontratuaren xede diren zeregin guztietan; horregatik, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta jartzen diren gainerako informazio orokorrak piktogramen bidez egingo dira, eta, hala badagokio, euskarazko azalpen-mezu bat erantsiko zaie. Ezin bada piktogramen bidez egin, euskaraz egingo dira, betiere mezu ezagunak eta ulergarriak badira.

Aurreko bi kasuetan ezinezkoa bada, bi hizkuntzetan egingo da, eta euskarari emango zaio lehentasuna, betiere administrazioarekin alde zuzeneko adostuta.

27. HIZKUNTZA-BALDINTZEN BETETZE-MAILAREN JARRAIPENA

Kontratua sustatzen duen administrazio-unitatearen ardura izango da kontratuan ezarritako hizkuntza-eskakizunen betetze-mailaren jarraipena egitea, gainerako baldintzen jarraipenaren antzera eta antzeko epeetan, eta horren berri ematea Euskara Zerbitzuari, hark onar dezan edo neurri zuzentzaileak proposa ditzan.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62. eta 210. artikuluen arabera:

- Kontratuaren arduradunak kontratua betetzen dela ikuskatuko du, hizkuntza-eskakizunak behar bezala betetzen direla egiaztatuko du, eta horretarako behar diren erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

Kontratuaren arduradunak ikuskapena egingo du, kontratua amaitzean ez ezik, jarraipen-euskarri espezifikoen bidez, detektatzen diren akatsak zuzentzeko.

28. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua gauzatzeko honako baldintza berezi hauek ezartzen dira, eta horiek ez betetzeak zigorrak ezartzea ekarriko du, salbu eta berariaz zehazten denean funtsezko kontratubetebehar izaera ematen zaiela kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartzeari dagokionez.

28.1.- Lan-arloko, gizarte-segurantzako eta laneko segurtasun eta osasuneko exekuzio-baldintza bereziak:

Enpresa kontratistak nahitaez bete behar ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak, kontratu honen xede diren zerbitzuetan lan egiten duten langileei dagokienez, eta Administrazioa salbuetsita geratuko da ez-betetze horren erantzukizunetik.

Gainera, enpresa esleipendunak, kontratua sinatu aurretik, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko du.

Kontratatutako enpresak, kontratua gauzatzen den bitartean, langile bakoitzari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ez da inola ere izango hura baino txikiagoa.

Kontratistak ezin izango du obrari esleitutako teknikaririk aldatu, Udalak aldeztu aurretik baimena eman ezear. Teknikarien ordezkoez, gutxienez, eskaintzen diren lanbide-ezaugarri baliokideak bete beharko dituzte.

28.2.- Azpikontratazio-baldintza bereziak:

Enpresa kontratistak, azpikontratatutako enpresei datu egokiak eskatu ondoren, justifikatu ahal izango du enpresa horiek ere aplikatzen dituztela lan-arloan, gizarte-segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak.

Hala, enpresa azpikontratistek, kontratua sinatu aurretik, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko dute; eta, kontratua gauzatzen den bitartean, langile bakoitzari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko dute, eta ordaindu beharreko soldata ez da inoiz izango soldata hori baino txikiagoa.

28.3.- Hizkuntza gauzatzeko baldintza bereziak:

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma baten bidez egingo dira, euskarazko azalpen-mezu batekin batera. Ezin bada piktograma baten bidez egin, euskaraz egingo dira mezu ezagunak eta ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak posible ez badira, bi hizkuntzetan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez, administrazioaren aldeztu aurreko adostasunarekin.

28.4.- Ingurumenari dagozkion baldintza bereziak:

Ez dira ezarri.

28.5.- Ez-betetzeen kasurako prozedura:

Kontratistaren batek ez-betetzeren bat egin duela uste bada, eta hori egiaztatzeko Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak ikuskapen-jarduketa egin behar badu, kontratazio-organismoak, kontratuaren zuzendariak proposamena egin ondoren, horren berri emango dio

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzari, laneko arau-haustea izan daitekeelakoan.

Ez-betetzea egiaztatzeko, lan-zehapen bat ezarriko da Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren ikuskapen-jardueraren ondoren edo epai judizial baten bidez, horietako edozein irmo bihurtu ondoren.

Gainerako ez-betetzeetan, Lan Ikuskaritzaren ikuskapen-jarduerarik behar ez denean, kontratuaren zuzendariak proposamena egin ondoren hasiko da espedientea.

Kasu guztietan, espedientea ebatzi aurretik, enpresa kontratistari entzungo zaio.

Enpresa kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko zenbatekoak kenduta ordainduko dira zigorrak, edo, hala badagokio, eraturako bermearen gainean, ziurtagirietatik kendu ezin direnean.

Gainera, atal honetan jasotako betebeharrak betetzetik eratorritako gastuak enpresa esleipendunaren kontura izango dira, eta kontratua gauzatzeko eskaintako prezioan sartuta egongo dira.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

29. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honetan oinarrituta egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta bertan aurreikusten ez den guztirako, honako hauetan xedatutakoari jarraituko zaio bereziki: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena; 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena; Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua, eta, hala badagokio, Administrazio Publikoen kontratazioari aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Kontraesana badago administrazio-klausula zehatzen agiri honen eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean, baldintza-agiri honetan xedatutakoa nagusituko da.

30. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende daudela ulertuko da; hala ere, alderdiek beren auziak arbitrajearen mende jartzea erabaki dezakete, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

I. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA (ARTXIBO ELEKTRONIKOA)

Ordez kariaren datuak:

Izen-abizenak:

NAN:

Enpresaren datuak:

Izena:
IFK:

Telefono-zenbakia:

ADIERAZTEN DUT, NIRE ERANTZUKIZUNPEAN:

LEHENENGOA. IRURAKO OSTATU BERRIA EGOKITZEKO OBRAK gauzatzeko kontratazioan parte hartuko duela.

BIGARRENA. Betetzen dituela Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140. artikulua lehengo apartatua obra-kontratuaren esleipendun izateko eskatzen diren aldez aurreko baldintza guztiak (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzauren transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora). Zehazki:

- Nortasun juridikoa eta, hala badagokio, ordezkaritza duela.
- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko betekizunak betetzen dituela.
- Ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotako debekuetako baten eraginpean.

indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

- Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen da, zuzenean edo zeharka gertatzen diren gorabehera guztietarako.

kontratutik sor daitezkeenak, eta, hala badagokio, lizitatzailari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egitea.

- Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa

-
- Adierazpen honetan eskatutako dokumentu guztien indarraldia egiaztatze-ko konpromisoa hartzen duela, eta kontratua esleitzen bazaio edo eskatzen zaionean aurkeztu ahal izango duela.

Eta hala jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

II. ERANSKINA: MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN PROPOSAMENA (“C” ARTXIBO ELEKTRONIKOA)

Eskaintza hau egiten duela IRURAKO OSTATU BERRIA EGOKITZEKO OBRAK egiteko:

- Prezioa: Obra ondoren zehazten den prezioan egiteko konpromisoa hartzen dut:

	AURREKONTUA	PROPOSAMENA (2 hamartar)
GAUZATZE MATERIALAREN AURREKONTUA	232.490,12 €	
Gastu orokorrak (% 13)	30.223,72 €	
Etekin industrialak (% 6)	13.949,40 €	
KONTRATA GAUZATZEKO AURREKONTUA	276.663,24 €	
BEZa (% 21)	58.099,28 €	
LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA, GUZTIRA	334.762,52 €	

Eskaintako kontrataren exekuzio-aurrekontua kontratuaren balio zenbatetsiaren gaineko murrizketa-ehuneko bat da: % (2 hamartarrekin).

(Nolanahi ere, kontrata gauzatzeko aurrekontua izango da eskaintzan prezioa puntuatzeko kontuan hartu beharreko zenbatekoa, nahiz eta kontzeptuen batura okerra izan. Era berean, kontrataren exekuzio-aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsiaren gaineko prezio-murrizketaren ehuneko bat ez badatoz, unitateko prezioei aplikatu beharreko ehuneko eskaintzan adierazitako kontrata gauzatzeko aurrekontu-zatitik sortzen den ehuneko izango da).

Eta hala jasota gera dadin, honako hau sinatzen dut.

CONTRATO DE OBRAS PARA EL ACONDICIONAMIENTO DEL NUEVO OSTATU DE IRURA

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PROCEDIMIENTO ABIERTO Y TRAMITACIÓN ORDINARIA

I.- CONTENIDO DEL CONTRATO

31. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato que se realizará al amparo del presente pliego será el CONTRATO DE OBRAS para el acondicionamiento del nuevo ostatu de Irura, de acuerdo con el Proyecto de Ejecución redactado CB2 proyectos, que tendrá carácter contractual.

Código CPV:

45000000-7 Trabajos de construcción

45212420-6 - Trabajos de construcción de restaurantes y establecimientos similares.

45212500-1 - Transformación de cocinas o restaurantes

32. PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo de ejecución de las obras objeto de la presente contratación será de SEIS (6) MESES como máximo, desde el día siguiente a la firma del acta de comprobación del replanteo.

El mes de agosto también será laborable y se tendrá en cuenta dentro del plazo propuesto.

La empresa contratada se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo previsto en el contrato, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.

33. PRECIO DEL CONTRATO

El valor estimado del contrato es de 276.663,24 €, IVA excluido, más 21 % de IVA 58.099,28 €, que supone un total de 334.762,52 €.

PRESUPUESTO DE EJECUCIÓN MATERIAL (PEM)		232.490,12 €
	% 13 gastos generales	30.223,72 €
	% 6 beneficio industrial	13.949,40 €
PRESUPUESTO DE EJECUCIÓN CONTRATA		276.663,24 €
	IVA % 21	58.099,28 €
TOTAL, PRESUPUESTO BASE LICITACIÓN		334.762,52 €

El precio del contrato incluirá una relación de precios unitarios que serán afectados en igual porcentaje de baja que el contenido en su proposición económica.

Una vez adjudicado el contrato, en el precio se entenderán incluidos todos los gastos e impuestos que se ocasionen como consecuencia del contrato, incluso los de transporte e instalación.

34. FINANCIACIÓN

Existe crédito presupuestario suficiente para atender a las obligaciones que se deriven para el Ayuntamiento del cumplimiento del contrato.

Asimismo, el órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

En concreto, se financiará con cargo a las siguientes partidas y años, recogidos en el Presupuesto Municipal del Ayuntamiento:

- 1 [0000.683.165.00.00](#) (2022)
- 1 [0000.683.165.00.00](#) (2023)
-

35. FORMA DE PAGO

El pago de las obras ejecutadas se realizará mediante certificaciones periódicas de carácter mensual, expedidas por el director facultativo de las mismas.

Una vez aprobada la factura, ésta será abonada dentro de los plazos legalmente previstos en el artículo 198 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

